



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko otsailaren 20an

16 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Nafarroako 1999ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

—Mozioa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etorkin guztien egoera legezkotu dezan (5. or.).

—Mozioa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatukoarekin negoziata dezan Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko Lege proiektua aldatzea (6. or.).

—Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da minbiziaren aurkako ekintza plan bat aurkez dezan (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da unibertsitatez besteko ikastetxeetan bizikidetasunari buruzko irizpideak egin ditzan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, inmigrazio gaietan PPko Gobernua aplikatzen ari den politikaren zeharo aurka dagoela adierazten du Nafarroako Parlamentuak. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzorde Berezian izapidatzea (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egin, Plan Gerontologikoan aurreikusitako zahar-etxeak eraikitzeari buruzkoa (10. or.).

—Galdera, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egin, gutxiengo etniko eta etorkinentzako ikastetxeetan lekuak gordetzeari buruzkoa (11. or.).

—Galdera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egin, Erreniagako mendatean gertatzen diren istripuei buruzkoa (12. or.).

—Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egin, Cascanten gaztelania ikasten laguntzeko klaseak emateari buruzkoa (13. or.).

- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Cascanten gaztelania ikasten laguntzeko klaseak ez emateko erabakia berraztertzeari buruzkoa (13. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Gizarte Ongizate Departamentuak epaimahaiak osatzeko teknikariak izendatzeari buruzkoa (14. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, epaimahaiak osatzeko pertsona-eskaera espresuari buruzkoa (15. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Cintruénigon igerileku girotu bat egiteko lanei lehentasuna emateari buruzkoa (15. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Cintruénigoko egungo igerilekuen egoerari buruzkoa (16. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Cintruénigoko DBH ikastetxea handitzeari buruzkoa (17. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Ribaforada eta Fustiñana lotzeko zubi bat eraikitzeari buruzkoa (17. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, abeltzaintza-ustategiei buruzko araudiari buruzkoa (18. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, zenbait enpresa publikoko langile ezgaituen kopuruari buruzkoa (18. or.).
- Galdera, foru parlamentari Andrés Basterra Layana jaunak egina, Kasedan zahar-etxe bat egiteari buruzkoa (19. or.).
- Galdera, foru parlamentari Andrés Basterra Layana jaunak egina, Kasedako Udalak onetsitako hitzarmenari buruzkoa (20. or.).
- Galdera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egina, telefono-antena ezartzeari buruzkoa (20. or.).
- Galdera, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egina, Azkoiengo osasun barrutiko gaueko osasun laguntzari buruzkoa (21. or.).
- Galdera, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egina, Cascanteko ikastetxe publikoan laguntzako irakasleak eskatzeari buruzkoa (22. or.).
- Galdera, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egina, Parlamentuak ebazpenak onetsi eta Nafarroako Gobernuak bete ez izanari buruzkoa (23. or.).

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:

- Nafarroako Foru Komunitatean behi-aziendaren entzefalopatia espongiformearen jarraipen eta kontrol berariazkoa egiteko batzorde berezia sortzea eta haren osaketari, antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko arauak onestea (24. or.)
- Nafarroa migrazio-politika bideratu behar duten irizpide orokorrak aztertzeko batzorde berezia sortzea eta haren osaketari, antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko arauak onestea (25. or.).
- Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusirako Hezkuntza eta Kultura Batzordeko ordezkari bat izendatzea (26. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako 1999ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan ezarritakoa betez, Foru Diputazioak, 2000ko ekainaren 27an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako 1999ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura. Hari buruz, Kontu Ganbarak txosten bat eman zuen, 2001eko urtarrilaren 10eko 5 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 154. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako 1999ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Osoko Bilkuran irakurketa bakarreko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

(Foru lege proiektuko artikulua bakarrean aipatzen diren agiriak foru parlamentarioen eskura daude Biltzarreko bulegoetan).

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako 1999ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorren prestatzea eta Kontuak formalizatzea Parlamentuari aurkezteko, horrek eztabaidan jarri, zuzendu eta, behar izanez gero, onespena eman diezaien, hori guztia foru legeak ezarri dutenari jarraikiz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 110. artikulua Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako Kontu Orokorren formulazioa, eta horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsita dituela, Nafarroako Parlamentura igorri beharko dira behar duten foru lege proiektuaren bidez, 8/1988 Foru Legeko 115. artikuluan aginduta dagoen bezala.

Nafarroako Gobernuak 1999ko ekitaldiko Kontu Orokorrei buruzko izapidaketak beterik dituela, Kontuen Ganbarak derrigorrezko irizpena emana duela eta Nafarroako 1999ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 151. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidatu delarik, bidezko da foru lege horri onspena ematea.

Artikulu bakarra. Onetsi egiten dira Ekonomi eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsitako Nafarroako 1999ko Kontu Orokorren, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 113, 114 eta 115. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik. Edukia ondoko agirietan agertzen da:

I. LIBURUKIA. Nafarroako Parlamentuaren eta Kontuen Ganbararen kontuak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuak, sozietate publikoen kontuak eta 1999rako Nafarroako Aurrekontu Orokorren betetze-mailaren azterketa. Liburuki honek, besteak beste, agiri hauek biltzen ditu:

- Gastu eta dirusarreraren likidazioaren egoerak orriak.
- Egoeraren balantze orokorra.
- Emaizten kontua
- Funtsen jatorriaren eta aplikazioaren egoerak orriak.
- Diruzaintzako kontu orokorra.
- Zorpetzeari buruzko kontu orokorra.

– Ondasun, eskubide eta obligazioen inbentarioa.

– Aurreko ekitaldien ondorioz kobratu beharreko eskubideen eta ordaindu beharreko obligazioen bilakaera eta egoera azaltzen duen egoera-orria.

– Ekitaldian erabilera orokorrari loturiko jabari publikoko ondasunetan eginiko inbertsioak azaltzen dituen egoera-orria.

– Hurrengo ekitaldien kontura harturiko konpromisoen egoera-orria.

II ETA III. LIBURUKIAK. Nafarroako Parlamentuaren, Kontuen Ganbararen eta Foru Komunitateko sozietate publikoen kontuen garapena.

IV. LIBURUKIA. Nafarroako Aurrekontu Orokorren eta egoera-orri finantzarioen likidazioaren xehetasun dokumentuak, 1999ko ekitaldia ixtean.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etorkin guztien egoera legezkatu dezan

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etorkin guztien egoera legezkatu dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Gaietako Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Parlamentuko Askotariko Taldeko parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Gizarte Gaietako Batzordean eztabaida eta bozka dadin.

Zioen azalpena:

Azken asteotan, herritarrek zenbait protesta-saio egin dituzte, Espainiako Estatuan etorkinek pairatzen duten egoera latza eta Atzerritarrei buruzko Lege berriaren indar-hartzeak egoera horretan eragin duen larriagotzea direla-eta.

Aipaturiko egoeraren ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Europar Batasunetik kanpoko milaka pertsona gaur egun egoitza- eta lan-baimenik gabe daude, eta, beraz, legez kontrako egoeran daude.

- Legez kontrako egoera horrek jokabide esplotatzaileen zabalkundea errazten du; horien

aurrean, langile etorkinak ez dauka inolako oinarriko eskubiderik. Aurrekoari atzerritarrei buruzko Lege berriaren ondorioak gehitzen badizkiogu, hau da, dokumenturik gabeko etorkinen elkarte, greba, manifestazio, sindikazio eta bilera eskubideen deuseztatpena, esplotazio-egoerak ohiko bihurtu daitezke.

- Espainiako Estatuaren bisatu-politika dago Gibraltarko itsasarteko txalupa-bidaian eta heriotzen jatorrian. Politika horrek emigratzaileak garraiatzeko legez kanpoko sareak sortarazi ditu; hain zuzen ere, milaka pertsonak eskura daukaten sistema bakarra.

- Era berean, "lehenespen nazionaleko politika" deiturikoak, lan-merkatua Hirugarren Munduko langileen konkurrentziaren aurrean "babesteko" balio izan beharrean, langile horiek ezkutuko ekonomiaren arloan lan egitera behartzen ditu; bereziki, lan-eskaintza irmoak dauzkaten langile etorkinei lan- eta egoitza-baimenak ukatzen zaizkienean.

- Lana daukaten milaka etorkin euren jatorrizko herrialdeetara itzul daitezzen behartzeak, lan-baimena ematen zaienean egoitza-bisatua jaso dezaten, ekartzen duena da, batetik, haiek jasan ezineto zorretan sartzea, eta, bestetik, lan-denbora eta soldatak galtzea, eta beste zailtasun bat gehiago euren lan-harremana normaltasunez has-teko.

- Gaur egun, lan-eskaintza irmoak dauzkaten etorkinei lan- eta egoitza-baimena emateko 6 edo 7 hilabete behar izaten dira maiz, eta, horrek, askotan, enplegua bera lortzea eragozten du, edo baldintza anormaletan lortzea eragiten du.

- Gaur egungo lan- eta egoitza-sistemaren muga profesional eta geografikoen, baimena berritu bitartean familia bildu ezin izatearen, eginko kotizazio-kopuruaren eta berriztapen-unean alta egitearen arteko loturaren eta abarren ondo-

rioz, langile etorkinak, urte askotan, euren solda-tarengatik, lanaldiarengatik, laneko baldintza orokorrengeatik –bertan sarturik daude euren lanbide-heziketa eta lanera bideratzeko prestakuntza– eta lanbide birtziklapenarengatik baino kezkatuago egon ohi dira euren paperengatik.

– Etorkinak poliziaren brigada berezi baten kontrolpean daude; brigada horrek haien bizi-baldintzarik pertsonalenak arakatzen ditu. Etorkinak behartuta daude poliziari edozein aldaketa (egoitzarena, lanarena edo egoera zibilarena) jakinaraztera, eta, horrela jokatu ezean, isuna jarriko zaien mehatxua daukate.

Erabaki proposamena:

Hori horrela, Nafarroako Parlamentuko Gizarte Gaietako Batzordeari honako erabaki hauek har ditzala proposatzen diot:

1. Nafarroako Gobernuaren premiaztea, Nafarroan lan egiteko eskaintza irmoak dauzkaten etorkin guztien egoera erregularizatzeko ahal duen guztia egin dezan.

2. Nafarroako Gobernuaren premiaztea, egoitza-eta lan-baimenak lortzea doakoa izatea eta Nafarroan bizi diren etorkinek baimen horiek berriro ahal izatea berma dezan.

3. Nafarroako Gobernuaren premiaztea berma dezan etorkinek ez dutela bazterkeriarik jasanen bertako biztanleekin alderatuta, administrazio-arloari dagokionez; zehazki, etxebizitza, lana edo egoera zibila aldatzeak ekartzen dizkien betebeharrak gehigarri dagokienez.

4. Nafarroako Gobernuaren premiaztea etorkinak Nafarroako lan-merkatuko edozein lanbide edo jardueratan Nafarroako biztanleen baldintza berberetan laneratu ahal izatea berma dezan.

5. Nafarroako Gobernuaren premiaztea etorkinek lan egiteko baimena egoitza-bisatua eduki behar izan gabe lortu ahal izatea berma dezan, halako moldez non etorkinek ez baitute euren jatorrizko herrialdeetara itzuli behar izaneren enbaxada edo kontsulatuak ziguiluz bat eskuratzea.

6. Nafarroako Gobernuaren premiaztea lan-eta egoitza-baimenen izapidatzeko berandutzak amaituko direla berma dezan, eta lan-eskaintza gauzatzen den unetik bertatik Gizarte Segurantzako behin-behineko alta baimendu dezan.

7. Nafarroako Gobernuaren premiaztea etorkinei abegi egiteko politikei ekin diezaien, herrialde honetan sartzea, bertan egotea, laneratzeko eta etxebizitza eskuratzea berdintasun-baldintzetan izan daitezkeen errazteko.

Halaber:

8. Espainiako Gobernuari eskaera tinkoa egitea bisatu-ematearen arloko politika murriztailea buka dezan.

9. Espainiako Gobernuari eskaera tinkoa egitea etorkinak egotez ez ditzan eta bisatua, alegia, enbaxadako zigilua, eskuratzea beste xederik ez duten etorkin-egozketek lekarketen baliabide ekonomikoaren xahuketa saihestu dezan.

Iruñean, 2001eko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiaztea da Estatukoarekin negoziatu dezan Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko Lege proiektua aldatzea

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiaztea da Estatukoarekin negoziatu dezan Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko Lege proiektua aldatzea”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitaratu dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea-CDN Parlamentuko Taldeak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak 192. artikuluan eta hurrengoetan xedaturikoari jarraituz, honako mozio hau aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Gobernu zentralak aurrekontu-egonkortasunari buruzko lege proiektu bat bidali du Gorte Nagusietara, autonomi erkidegoetako gastua eta zorpetzea kontrolatzeko asmoz; izan ere, haren ustez, Maastrichteko Hitzarmenean ezarritako konbergentzia-irizpideetatik aldentzen ari dira. Proiektu horrek, oro har, ekarriko duena da autonomi erkidegoen ahalmen ekonomiko-finantzarioa baldintzatzea eta Gobernuaren erabakien menpean jartzzea.

Hori guztia, ezertan ere kontuan izan gabe Espainiako Estatuaren barruan badagoela Nafarroako Foru Komunitatearena bezalako araubide ekonomiko-finantzario bereiztu bat, LORAFNAko 45. artikulua xedatzen duen bezala. Araubide hori hitzarmen ekonomikoan gauzaturik dauden autonomian eta alde biko erlazioetan oinarritzen da. Gogoratu beharrekoa da eskubide historiko hori Konstituzioko lehen xedapen gehigarriak bermatzen duela, Nafarroako Erresumaren burujabetza ekonomiko-finantzarioari ezaguturiko hondar gisa.

Gauza nabaria da lege proiektu hori Alderdi Popularraren Gobernuak hasi duen autonomi erkidegoen arteko "harmonizazio" prozesu berriaren atal bat dela, eta aurreko legegintzaldian erdietsi ezin izan zuen homogeneizazioa bilatzen duela, oraingoan, gehiago absolutuaren bidez. Autonomi Erkidegoen bizitza baldintzatu nahi da, Politika Fiskal eta Finantzarioako Kontseiluaren txosten baten bitartez helburuak finkatuz. Horrek guztiak agerian uzten du Gobernuak autonomi Estatuaren ereduaren aurkako inboluzio prozesu bati ekin diola, Konstituzioko VIII. tituluari aurka egin eta indargabetu zedila eskatu zutenen espainiar nazionalismo zentralistaren diskurtsoa berreskuratuz.

Foru Komunitatearen eta, baita ere, Euskal Autonomi Erkidegoaren kupo-sistema berekiari dagokionez, hori aldatzeko asmoa dago, gainerako erkidegoekiko bereizgarri bat dela eta euren

finantzaketa hobetzeko etengabeko eskaerak pizten dituela jotzen dutelako.

Nafarroaren eta Estatuaren arteko alde biko harremanen sistema, Hitzarmen Ekonomikoan formalizatzen dena, alegia, solidaritatea gauzatzeko baliozkoa dela frogatu da, bai eta Foru Komunitateari Estatuako helburuen betetzean dagokion erantzukizunaren kuota partekatu eta horri aurre egiteko ere (adibidez, Europako Batasun Ekonomiko eta Monetarioan Espainia sar dadila ahalbidetu duten helburuak betetzeko xedez, bere zorpetzea aurrekontu-konbergentziako agertokiaren beharrianetara egokitzea).

Horregatik, Nafarroari dagokionez, ez dago aurrekontu egonkortasunari buruzko inolako legeren beharrik, egonkortasun hori guztiz lortua baitago erantzukizun, solidaritate eta alderdien arteko adostasunaren bitartez, alde batek besteari inolako inposiziorik ezarri gabe. Halako inposizio batek, gainera, ezjakintasuna adierazten du eskubide historikoei buruz eta bi alderdien eskumen berekiak elkarri egokitzeko sistema gisa alde biko-tasuna aplikatzeari buruz. Estatuaren eta gainerako autonomi erkidegoen arteko harremanen esparruan baliozkoa izan daitekeen irtenbideak ez du balio Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean dauden harremanetarako, non eta Gobernu honek, harrokeriaz jokatuz, negoziazioaren orde inposizioa ezarri nahi ez duen.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Demokraten Elkargunea-CDN Parlamentuko Taldeak honako erabaki hau har dezala proposatu nahi dio Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari:

"Nafarroako Gobernuak berehala ekin dio Estatuako Gobernuarekin negoziatzeari, aurrekontu egonkortasunari buruzko lege proiektuan xedapen gehigarri bat eransteko. Xedapen gehigarri horretan, bidaltze-ohar espresu bat eginen da, Konstituzioko lehen xedapen gehigarriak eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetze-ari buruzko Lege Organikoko 45. artikulua xedaturikora bideratzeko, eta espresuki babestuko da Foru Komunitateko finantza- eta aurrekontu-araubidea, aipatu legeko xedapenen aplikaziorik atutziz eta Hitzarmen Ekonomikoaren sistemaren arauera pasaz".

Iruñean, 2001eko otsailaren 2an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da minbiziaren aurkako ekintza plan bat aurkez dezan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da minbiziaren aurkako ekintza plan bat aurkez dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko bozeramaile Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan mozioak arautzen dituzten 192. artikulua eta hurrengoak aplikatuz, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak mozio bat onesteari buruzko eztabaida egin dezala proposatzen du. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2001ean minbiziaren aurkako ekintza plan bat aurkez dezan, zeinean jasoko baitira mozioko erabaki proposamenean azaldutako puntuak.

Zioen azalpena

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen aburuz, gaur egun beharrezkoa da Foru Komunitatean minbiziaren aurkako ekintzei bultzada ematea.

Minbiziak Nafarroan duen eraginaren erakusgarri dira tumoreen erregistroko datuak. Horien arabera, minbizia da, gure Komunitatean, gizonen lehen hilkortasun-kausa, eta emakumezkoen bigarrena.

Laguntza onkologikoaren arloko arazoak aztertuz, ikusi ahal izan dugu zerbitzuek eriarenganako orientazio urria daukatela, diagnostikora bitarteko prozesuak motelak direla, laguntza-prozesuan zehar neurriek jarraitasun eskasa daukatela, tek-

nologia-hornidura kaskarra dela, eta koordinazio nahiz ikerketaren garapena apala dela.

Onkologia Radioterapikorako dagoen dotazioaren analisiak agerian utzi du beharrezkoa dela, epe laburrean, tresneria-hornidura handitzea eta berritzea, eta ekipoak osatzea. Onkologia Medikoan ezberdintasunak ageri dira giza baliabideen dotazioari dagokionez, eta ospitale batzuetan ez da existitzen espezialitate bereki gisa. Kirurgia Onkologikorako oso gomendagarria da arian-arian hobetu ahal izateko normalizazio-irizpide batzuk ezartzea.

Laguntza onkologikoak oro har agertzen dituen aipatutako akatsak kontuan izanik, begi-bistakoa dirudi hura egokitu egin behar dela, baliabideak hobeto aprobetxatzea lortzeko eta, horrela, azaldutako emaitzak hobetzeko, inzidentziari, hilkortasunari, bizi-kalitatea hobetzeari eta gaixoen artean konfiantza- eta asebetetze-sentimena eraginen dituen eri-laguntza jarraitua bermatzeari dagokienez.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu, Nafarroako Parlamentuak onets dezan:

Nafarroako Parlamentuak Gobernua premiatzen du 2001ean minbiziaren aurkako ekintza Plan bat aurkez dezan, zeinean honako puntu hauek bilduko baitira:

1. Nafarroako Zentro Onkologikoa eratzea, Koordinazio Onkologikorako Eskualdeko Bulego gisa jardun dezan eta minbiziaren arloan laguntza-, irakaskuntza- eta ikerketa-jardura zuzendu dezan.

2. Eskualdeko ospitaleetan minbiziaren unitateak definitzea.

3. Jarduketak erien beharizanen inguruan antolatzea.

4. Dotazioak berrikuntza teknologikoaren esparruan sartzea.

5. Bermatu behar du diziplina arteko Plan Terapeutiko adostu batean oinarrituak egonen direla tratamenduak.

6. Tratamenduak ahalik eta eskuragarrienak izatea bultzatu behar du, behar den kalitate teknikoarekin bateragarri eginez.

7. Minbiziari buruzko egiazko Informazio Unitate bat eratzea.

8. Lidergo eta parte-hartze kontzeptuak, beharrezkoak, kontuan hartzea.

9. Minbiziaren aurka berariazko ikerketa-politika bat aurrera eramatea.

Iruñean, 2001eko otsailaren 9an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da unibertsitatez besteko ikastetxeetan bizikidetasunari buruzko irizpideak egin ditzan

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko otsailaren 15ean eginko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da unibertsitatez besteko ikastetxeetan bizikidetasunari buruzko irizpideak egin ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da unibertsitatez besteko ikastetxeetan bizikidetasunari buruzko irizpideak egin ditzan

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan Hezkuntza Komunitateko estamentuen arteko bizikidetasuna hobetzeko jardunbideak proposatzeko irizpideak taxutu ditzan".

Mozioa. Horren bidez, inmigrazio gaietan PPko Gobernua aplikatzen ari den politikaren zeharo aurka dagoela adierazten du Nafarroako Parlamentuak

BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDE BEREZIAN IZAPIDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, inmigrazio gaietan PPko Gobernua aplikatzen ari den politikaren zeharo aurka dagoela adierazten du Nafarroako Parlamentuak". Mozio hau Osoko Bilkuran izapidetu behar zen, eta Bizikidetasuna-

ren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzorde Berezian izapida dadin agintzen da. Mozio hori 2001eko otsailaren 6ko 9 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko otsailaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Plan Gerontologikoan aurreikusitako zahar-etxeak eraikitzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Plan Gerontologikoan aurreikusitako zahar-etxeak eraikitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari:

2001eko urtarrilaren 26ko parlamentu-erantzunean, Gizarte Ongizate, Kirol eta Etxebizitza Kontseilariak azalpenak eman ditu egoitza berriak eraikitzeari, apartamentu babestuak Eguneko Zentro bihurtzeari eta abarri dagokionez Plan Gerontologikoak eginiko aurreikuspenen betetze-mailari buruz.

Erantzun hori ikusirik, honako hauek jakin nahi genituzke:

1.- Adierazi zaigunez, Betelun 45 pertsonentzako egoitza bat eraikitzen ari dira. Nor da inber-

tsio horren sustatzaile? Zein da inbertsio horren guztizko kostua? Zenbateko ekarpena egingen du Nafarroako Gobernuak azpiegitura horretarako inbertsio-gastuak ordaintzeko?

2.- Nafarroako ipar mendebaldeko II. Eskualdean (Agoitz, Auritz, Izaba, Zaraitzu eta abar), Erroibarren, 40 pertsonentzako egoitza bat eraikitzen ari direla esan zaigu. Nor izan da ekimen horren sustatzaile? Zein da inbertsio horren guztizko kostua? Zenbateko parte-hartze ekonomikoa dauka Nafarroako Gobernuak azpiegitura horretarako inbertsio-gastuen ordainketan?

3.- III. Eskualdean (Lizarra, Allo, Lodosa, Los Arcos, Gares, San Adrián, Viana eta abar) egoitza bat ireki da Etxabarrin. Nor izan da ekimen horren sustatzaile? Zenbateko kostua izan du? Zenbatekoa izan da Nafarroako Gobernuaren ekarpena? Zergatik ez dira Vianan 18 postu sortu, Plan Gerontologikoak aurreikusten zuen bezala?

4.- V. Eskualdean (Tutera, Buñuel, Corella, Valtierra eta abar), Fustiñanan 30 pertsonentzako egoitza bat eraiki dela jakinarazi zaigu. Baina eraikin hori ez zuen Plan Gerontologikoak aurreikusten. Nor izan da ekimen horren sustatzaile? Zenbatekoa izan da obra horren exekuzio-aurrekontua? Zenbateko ekarpena egin du Nafarroako Gobernuak inbertsio horretara?

Iruñean, 2001eko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Gutxiengo etniko eta etorkinentzako ikastetxeetan lekuak gordetzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak gutxiengo etniko eta etorkinentzako ikastetxeetan lekuak gordetzeari buruz egindako galderaren biderape-na onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batuko Parlamentari Taldeko Hezkuntza eta Kultura eledun M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dadin:

Egunotan hedabideetan agertu den albiste baten arabera, litekeena da aurki foru agindu baten bidez Hezkuntza Departamentuak talde bakoitzeko bi leku gordetzea, hurrengo matrikulazio-eperako, haur hezkuntzako bigarren zikloko lehen ikasturtean (3 urtekoak). Erreserba horrek Nafarroan hitzartuak dauden ikastetxe publiko eta pribatu guztiak hartuko lituzke, eta gutxiengo etnikoetakoak eta etorkinak diren ikasleentzat izango litzateke.

Kontuan izanik Nafarroako Parlamentuak 1999ko otsailaren 2an onetsitako Gizarte Bazterkeriaren aurkako Planak hezkuntza neurrien artean jasotzen zuela gutxienez ere lekuen % 5 erre-serbatzea derrigorrezko hezkuntzako ikasturte eta ziklo guztietan, hauxe jakin nahi genuke:

1.- Hedabideek aipatzen duten foru aginduak ezartzen duen erreserba haur hezkuntzako 2. zikloko lehen ikasturterako da soilik, edo Gizarte Bazterkeriaren aurkako Planeko neurria, jadanik 1999/2000 ikasturtean abiarazi ahalko zen hori, beteko du?

2.- Errealitate bat denez etorkinek seme-ala-bak maila ezberdinetan eskolatu behar dituztela, adin ezberdinetakoak baitira, nola ari da jokatzeko Hezkuntza Departamentua une honetan, eta nola jokatu du 2001/2002 ikasturterako matrikulazio-araudi berriaren eraginpean?

3.- Gutxiengo etnikoetakoak eta etorkinak diren ikasleei dagokienez, nola jokatu izan da orain arte, ikastetxeetan matrikulatzerakoan, etxebizitza berean bizi diren anai-arreben eta zuzeneko ahaideen kasuan? Horiek guztiak ikastetxe publiko edo hitzartu berera joan beharra errespetatzen al da?

Iruñean, 2001eko otsailaren 2an

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Erreniagako mendatean gertatzen diren istripuei buruzko galdera

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Erreniagako mendatean gertatzen diren istripuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Bilzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Herrilan eta Azpiegitura Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Azken hilabeteotan, larritasun-maila ezberdinetako trafiko-istripu ugari izan da N-111 errepidean Erreniagako mendate aldean. Izan den azkenean, 2001eko otsailaren 1ean, bi pertsona hilik suertatu dira, eta beste bi, hein ezberdinean zauriturik.

Errepide-tarte horretan gertatu ohi den istripukopurua ikusirik, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak galdera bat egin zuen joan den azaroan, eta 2000ko abenduaren 19an jaso zuen Nafarroako Gobernuak horri emandako erantzuna.

Herrilan, Garraio eta Telekomunikazio Kontseilariak emandako erantzunaren arabera, aipatu errepide-zatiko istripu-kopurua dela-eta hartzera doazen neurrien artean, mendate horri itzuri eginen omen zaio Iruña-Logroño autobia eraikitzen denean. Halaber, puntu jakin batzuetan abiadura mugatu dutela eta, alboetako marretan soilik, pintura zimurtsua jarri dutela dio erantzun horrek.

Oraintsu izan den istripu hilgarria dela-eta, errepide hori erabili eta istripuren batean nahasturik suertatu direnek berriro ere azpimarratu dute erreiak bereizteko balio duten barnealdeko marrak ez daudela labaintzen aurkako produktuz estalirik, eta, horren ondorioz, euria egiten duenean edo akuiferoen eraginez hezetasuna bereziki metatzen deneko lekuetan, ibilgailuak irristatu egiten direla. Argiketak egiten dituzten polizia-agentek ere halaxe azaldu izan diete istripuetan kalte-tutakoei, eta bide-segurtasunaren aurkako jokaera zuhurtzigabe horrengatik Nafarroako Gobernuaren aurka salaketa aurkeztea ere iradoki izan diete.

Hori guztia dela-eta, Parlamentuko gure taldeak, gai horri eutsiz, honako galdera hauek egin nahi ditu:

1.- Zenbat istripu izan da lehen aipaturiko bide-zatian 2000n zehar eta 2001en orain arteko tartean?

2.- Nolako larritasunekoa izan da istripu bakoi-tza?

3.- Eginiko argiketen arabera, istripu horien zergatia zein izan dela uste da?

4.- Istripuen ondorioz, errepide horretako seinalizazio kaskarrean oinarrituz Nafarroako Gobernuaren aurkako salaketarik aurkeztu al dute istripua jasan dutenek?

5.- Erreiak bereizteko barnealdeko marrak pintura zimurtsuz margotzeko asmorik ba al du Nafarroako Gobernuak?

6.- Baiezkoan, margotze-lan horiek noiz egiteko asmoa du?

7.- Ezezkoan, zergatik ez zaie margotze-lan horiei ekin nahi?

Iruñean, 2000ko otsailaren 2an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Cascanten gaztelania ikasten laguntzeko klaseak emateari buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Cascanten gaztelania ikasten laguntzeko klaseak emateari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak xedaturikoaren babesean, honako galdera izapida dadila eskatu du, Hezkuntza Kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Cascanten gaur egun etorkinen seme-alaba ugari dago. Horietako gehienak lituaniar, aljeriar,

marokoar eta hegoamerikarrak dira. Haur multzo horrek joan den ikasturtean irakasle laguntzaile bat izan zuen gaztelania-klasean, 9 ikaslerentzat, lanaldi erdian ziharduena.

Orain abian dagoen ikasturtean, gaztelania-klaseak hartuko lituzketen ikasleen kopurua hogeita biraino igo da, baina Ikastetxeko Klaustroari jakinarazi zaio ezen, gaztelaniako irakaslearen lanaldia gehitu ordez, aurten ez dela irakasle laguntzailerik izanen, Hezkuntza Departamentuak, irakasleen ratioa aztertu ondoren, ez duelako beharrezkotzat jo aipaturiko laguntza hori.

Gaur egun, ikastetxeko irakasle batzuk ari dira eginkizun hori betetzen; hori, ordea, aurreko ikasturtean jorratu ahal izan ziren zenbait jarduera eta gairen kaltetan suertatzen ari da.

Galdera, idatziz erantzun dadin:

Nolatan liteke aurreko ikasturtean, laguntza behar duten ikasle gutxiago izanik, Departamentuak aurtengorako hartu duen erabakia hartu ez izana?

Iruñean, 2001eko otsailaren 5ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Cascanten gaztelania ikasten laguntzeko klaseak ez emateko erabakia berraztertzeari buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Cascanten gaztelania ikasten laguntzeko klaseak ez emateko erabakia berraztertzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak xedaturikoaren babesean, honako galdera izapida dadila eskatu du, Hezkuntza Kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Cascanten gaur egun etorkinen seme-alaba ugari dago. Horietako gehienak lituaniar, aljeriar, marokoar eta hegoamerikarrak dira. Haur multzo horrek joan den ikasturtean irakasle laguntzaile

bat izan zuen gaztelania-klasean, 9 ikaslerentzat, lanaldi erdian ziharduena.

Orain abian dagoen ikasturtean, gaztelania-klaseak hartuko lituzketen ikasleen kopurua hogeita biraino igo da, baina Ikastetxeko Klausuroari jakinarazi zaio ezen, gaztelaniako irakaslearen lanaldia gehitu ordez, aurten ez dela irakasle laguntzailerik izanen, Hezkuntza Departamentuak, irakasleen ratioa aztertu ondoren, ez duelako beharrezkotzat jo aipaturiko laguntza hori.

Gaur egun, ikastetxeko irakasle batzuk ari dira eginkizun hori betetzen; hori, ordea, aurreko ikasturtean jorratu ahal izan ziren zenbait jarduera eta gairen kaltetan suertatzen ari da.

Galdera, idatziz erantzun dadin:

Cascanteko Udalak eskaturik Departamentuak harekin bilera egin ondoren, Departamentuak bere jarrerari eusteko asmorik al du, ala jarrera aldatuko du?

Iruñean, 2001eko otsailaren 5ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Gizarte Ongizate Departamentuak epaimahaiak osatzeko teknikariak izendatzeari buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Gizarte Ongizate Departamentuak epaimahaiak osatzeko teknikariak izendatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak xedaturikoaren babesean, honako galdera izapida dadila eskatu du, Gizarte Ongizateko Kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena

1999ko abuztuan, Cintruénigoko Udalak lehiaketa baterako deia egin zuen, haurtzaindegi zerbitzua esleitzeko.

Aipatu herriko alkateak, aurkez zitezkeen proiektuak ebaluatzeko, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Zuzendari Kudeatzaileari eskutitz bat bidali zion, eta, horren bidez, Institutuko teknikarien laguntza eskatzen zion. Eskutitzean, ebaluazio-taldea osatzeko behar zituen bi pertsona zehatzen izenak adierazten zituen.

Aipaturikoa bezalako kasuetan, esleipena hobeto egiteko udalek Nafarroako Gobernuari laguntza tekniko eskatzea ohikoa da; alabaina, ez dakigu jokoera normala ote den Departamentuei teknikari edo pertsona zehatzen laguntza eskatzea.

Galdera, idatziz erantzun dadin

Gizarte Ongizateko Departamentuak zenbat aldiz eta zein udalentzat izendatu ditu Departamentuko teknikariak azken bost urteotan, lehiaketa eta oposizioetan ebaluazio-epaimahaiak eratzeko, udalek hala eskaturik, eta lehen aipaturiko berezitasuna tartean dela (alegia, udalak izen-deiturak aipatuz teknikari zehatzak eskatzea)?

Iruñean, 2001eko otsailaren 5ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Epaimahaiak osatzeko pertsona-eskaera espresuari buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak epaimahaiak osatzeko pertsona-eskaera espresuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak xedaturikoaren babesean, honako galdera izapida dadila eskatu du, Gizarte Ongizateko Kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena

1999ko abuztuan, Cintruénigoko Udalak lehia-keta baterako deia egin zuen, haurtzaindegi zerbitzua esleitzeko.

Aipatu herriko alkateak, aurkez zitezkeen proiektuak ebaluatzeko, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Zuzendari Kudeatzaileari eskutitz bat bidali zion, eta, horren bidez, Institutuko teknikarien laguntza eskatzen zion. Eskutitzean, ebaluazio-taldea osatzeko behar zituen bi pertsona zehatzen izenak adierazten zituen.

Aipaturikoa bezalako kasuetan, esleipena hobeto egiteko udalek Nafarroako Gobernuari laguntza teknikoa eskatzea ohikoa da; alabaina, ez dakigu jokaera normala ote den Departamentuei teknikari edo pertsona zehatzen laguntza eskatzea.

Galdera, idatziz erantzun dadin

Gizarte Ongizateko kontseilariaren ustez, azal dutako prozedura horrek, zeinak bereizgarri baitu beharrezkoak diren pertsona zehatzak eskatzen direla, eta ez haiek bete beharreko baldintza teknikoak, sendo uzten al du bere Departamentuko funtzionarioen irudi ona, alde batera utziz pertsona horien jokaera guztiz etiko eta zuzena izatea?

Iruñean, 2001eko otsailaren 5ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Cintruénigon igerileku girotu bat egiteko lanei lehentasuna emateari buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Cintruénigon igerileku girotu bat egiteko lanei lehentasuna emateari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak xedaturikoaren babesean, honako galdera izapida dadila eskatu du, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Cintruénigoko Udalak hiru proiektu ezberdin eskatu zituen Kirol Azpiegiturei buruzko Plan Zuzentzaileako: futbol-zelai bat egitea, gaur egungo igerilekuak zaharberritzea eta igerileku girotu bat eraikitzea.

Azkenean, aipaturiko hirugarren proiekturako diru-laguntza eman zuen erakunde eskudunak; hau da, igerileku girotu bat eraikitzekoa. Proiektu hori gaur egungo igerilekuen instalazioetan eginen da. Igerileku horiek hogeita hamar urte baino gehiago dauzkate, eta zaharberritzea premiazkoa dute, indarreko araudira egokitzeko eta hainbat dotazioz hornitzeko, hala nola aldagela duinez, gaur egungoek zenbait osasun-betebehar urra baititzakete.

Galdera, idatziz erantzun dadin:

Zer dela-eta lehenetsi du Nafarroako Gobernuak igerileku girotua eraikitzeko laguntza-ematea gaur egungoen zaharberritzearen kaltetan, kontuan izanik azken proiektu hori beharrezkoa dela indarreko araudira egokitzeko, eta, gainera, aldagelak osasun-arloan legez kanpo egon litezkeela?

Iruñean, 2001eko otsailaren 5ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Cintruénigoko egungo igerilekuen egoerari buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Cintruénigoko egungo igerilekuen egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak xedaturikoaren babesean, honako galdera izapida dadila eskatu du, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Cintruénigoko Udalak hiru proiektu ezberdin eskatu zituen Kirol Azpiegiturei buruzko Plan

Zuzentzailerako: futbol-zelai bat egitea, gaur egungo igerilekuak zaharberritzea eta igerileku girotu bat eraikitzea.

Azkenean, aipaturiko hirugarren proiekturako diru-laguntza eman zuen erakunde eskudunak; hau da, igerileku girotu bat eraikitzekoa. Proiektu hori gaur egungo igerilekuen instalazioetan eginen da. Igerileku horiek hogeita hamar urte baino gehiago dauzkate, eta zaharberritzea premiazkoa dute, indarreko araudira egokitzeko eta hainbat dotazioz hornitzeko, hala nola aldagela duinez, gaur egungoek zenbait osasun-betebehar urra baititzakete.

Galdera, idatziz erantzun dadin:

Izan al dira Nafarroako Gobernuako teknikariak gaur egungo igerilekuaren instalazioak ikusten, eta horien egokitasunari buruz behar diren txostenak eman al dituzte? Baiezkoan, zer adierazi dute teknikariek?

Iruñean, 2001eko otsailaren 5ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Cintruénigoko DBH ikastetxea handitzeari buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Cintruénigoko DBH ikastetxea handitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak xedaturikoaren babesean, honako galdera izapida dadila eskatu du, Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Cintruénigon dagoen DBHko ikastetxeak, eraiki zenean plangintzarik ez egiteagatik, errekreorako gune zabalik ez dauka, ez eta horrelako ikastetxe batek oinarri-oinarrizkoa duen gimnasiorik ere.

Udala beharrezkoak diren urratsak ematen ari da ikastetxetik hurbil dagoen lur sail bat erosteko, horrela ikastetxearen zabaltze-beharrari aurre egiteko, nahiz eta prezioak erabat neurrigabeak izan.

Galdera, idatziz erantzun dadin

Zein urrats ematen ari da Nafarroako Gobernuak Cintruénigoko DBHko ikastetxeak behar duen handitzea, bai errekreo-eremuari dagokionez, bai gimnasio bat eraikitzeari dagokionez, posible egiteko?

Iruñean, 2001eko otsailaren 5ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Ribaforada eta Fustiñana lotzeko zubi bat eraikitzeari buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Ribaforada eta Fustiñana lotzeko zubi bat eraikitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak xedaturikoaren babesean, honako galdera izapida dadila eskatu du, Herrilan kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Nafarroako Ribaforada eta Fustiñana herriak lotzeko zubi bat eraiki dadila eskualde horretako biztanle askoren eskakizuna da, zubi hori, arrazoi askorengatik, beharrezkoa baita.

Galdera, idatziz erantzun dadin

Zer asmo dauzka Nafarroako Gobernuak gai horretan, eta zein egoeratan dago aipaturiko proiektua?

Iruñean, 2001eko otsailaren 5ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Abeltzaintza-ustiatzei buruzko araudiari buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak abeltzaintza-ustiatzei buruzko araudiari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak xedaturikoaren babesean, honako galdera izapida dadila eskatu du, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zioen azalpena

Uztailaren 24ko 188/86 Foru Dekretuak zenbait arau ezarri zituen, abeltzaintza-ustiatzeiak baimentzeko baldintza tekniko, higieniko, osasuneko eta ingurumenekoei buruz.

7. artikulua hamabost urteko epea ezarri zuen herriguneeen barnean edo dekretu bereko 8. artikuluan adierazitako distantziak baino hurbilago kokaturiko abeltzaintza-ustiatzeiak desagertzeko. Halaber, neurri zuzentzaileen aplikazioak instalazioaren osasungarritasuna bermatzen ez dueneko ustiatzeiak bai eta jarduera-baimenean edo Foru Dekretuan xedaturikoan oinarrituz ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen ez dituztenak ixtea agintzen zuen 14. artikulua.

Galdera, idatziz erantzun dadin

7. artikuluan ezarritako epea bukatu ondoren, zein da, gaur egun, 188/86 Foru Dekretuaren betetze-egoera, nahitaez bete beharreko agindu horiei dagokienez?

Iruñean, 2001eko otsailaren 5ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Zenbait enpresa publikoko langile ezgaituen kopuruari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak zenbait enpresa publikoko langile ezgaituen kopuruari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengo-

ek ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari:

Kontuen Ganbarak, 2000ko maiatzean erakunde autonomo, enpresa publiko eta zuzenbide publikoko enteei buruz eman zuen txostenean, enpresa publikotzat jotzen ditu Nafarroako Gobernuak zuzenean nahiz zeharka kapitalaren % 50 baino gehiago daukanekoak. Kontuen Ganbararen arabera, Nafarroan 29 enpresa publiko daude, eta, horietatik, 23 instrumentalak dira, 5 ez instrumentalak, eta beste bat, Audenasa, "bestelakoak" epigrafean sartuta dago, bere ezaugarri bereziengatik.

Ezgaitasunak dauzkaten pertsonen mesedetan % 2ko kuota erreserbatzea agintzen duen araudia dela-eta enpresa horietan zenbat langile ezgaitu dagoen jakiteko eginiko galderari erantzutean, Ekonomia kontseilari Iribarren jaunak ez digu

informaziorik eskaini honako enpresa publiko hauei buruz:

– ITG Ganadero, ITG Agrícola, Gestión Ambiental (Viveros y Repoblaciones), NASERSA, NAFINCO, Iruñeko Planetarioa, Iruñeko Garraioaren Hiria eta Instituto de Calidad Agroalimentaria de Navarra.

Hori dela-eta, langileen gututzko kopuruari eta langile ezgaituen kopuruari buruz Ekonomia kontseilariak bidalitako informazio berbera eskatzen dugu, baina aipaturiko enpresa publikoetarako; hain zuzen, Ekonomia kontseilariak 2001eko urtarrilaren 24an emandako erantzunean agertu ez zen informazioa.

Halaber, enpresa publiko guztiei buruzko honako informazio hau eskatzen dugu: ea kontraturiko langileen % 2 ezgaituak izatea agintzen duen araua betetzen ez denean beste alternatiba batzuetara jo ote den 50 langile baino gehiagoko enpresetan; hain zuzen ere, urtarrilaren 14ko 27/2000 Errege Dekretuak ezarritakoetara. Errege Dekretu horrek 50 langile edo gehiagoko enpresetan langile ezgaituen mesedetan % 2ko kuota gordetzearekiko alternatiboak diren neurri apartekoak ezarri ditu.

Iruñean, 2001eko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Kasedan zahar-etxe bat egiteari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI ANDRÉS BASTERRA LAYANA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, foru parlamentari Andrés Basterra Layana jaunak Kasedan zahar-etxe bat egiteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Andrés Basterra Layana jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari:

Kasedako Udala lehen urratsak ematen ari da bertan zaharren egoitza bat eraikitzeke. Horretarako, kontu-sail bat gaitu du azken osoko bilkure-tako batean, eta, horrela, azpiegitura hori eraikitzeke administrazio-izapidaketa hasi du.

Egoera horren aurrean, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Kasedako Udalak bertan zaharrentzako egoitza bat eraikitzeke daukan asmoaren berri ba al du eta babesik eman al dio Nafarroako Gobernuak?

2.- Zergatik ez zuen Nafarroako Gobernuak Nafarroako Plan Gerontologikoan sartu etorkizunean Kasedan egoitza bat eraikitzea? Kasedako egoitza horren eraikuntzarako finantzaketan zein irizpideren arabera laguntzea erabaki du Nafarroako Gobernuak?

3.- Azpiegitura hori eskualdekoa izanen dela kontuan izanik –Eslaba eta Galipentzuko bizilagunak ere hartuko baititu–, ekarpen gehigarriak eskuratuko du Kasedako Udalak? Eskualde horretarako zerbitzu hori zein epetan abiaraztea aurreikusiko du Nafarroako Gobernuak?

4.- Kasedako egoitza hori eraikitzeak zenbateko gututzko kostua izanen du? Inbertsio hori finantzatzeko zein ekarpen egiteko asmoa dauka Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2001eko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Andrés Basterra Layana

Kasedako Udalak onetsitako hitzarmenari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI ANDRÉS BASTERRA LAYANA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, foru parlamentari Andrés Basterra Layana jaunak Kasedako Udalak onetsitako hitzarmenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Andrés Basterra Layana jaunak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari:

Kasedako Udalak, 1996an, Osoko Bilkuran hitzarmen transakzionala onetsi zuen, eta Nafarroako Gobernuari igorri zion, onetsi zezan.

Hori horrela, hauxe jakin nahi dugu:

1.- Zein urrats eman dira hitzarmen hura onesteko edo bi alderdien artean (Kasedako Udala eta Nafarroako Gobernuak) berri bat prestatzeko?

2.- Hitzarmen transakzional hori sinatzeko atzerapena Kasedako nekazariei zenbaterainoko kaltea eragiten ari zaien ba al daki Nafarroako Gobernuak? Izan ere, Kasedako lurretan lurzati berrantolamendua egitea eta abeltzainekin bazkalekuei buruzko hitzarmen berri bat egitea eragozten du.

3.- Nafarroako Gobernuak mugaegunetik finkatu du hitzarmen hura sinatu edo beste bat prestatu ahal izateko Kasedako Udalarekin adostasun batera iristeko, eta horrela arazoa ahalik lasterren konpontzeko?

4.- Zer elkarrizketa, eta zer egunetan, izan ditu Kasedako Udalak, legegintzaldi honetan, Nafarroako Gobernuak Nekazaritza Departamentuarekin, arazo hori konpontzeko?

Iruñean, 2001eko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Andrés Basterra Layana

Telefono-antenak ezartzeari buruzko galdera

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak telefono-antenak ezartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Bilzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

Joan den abenduan, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak telekomunikazioko oinarriko estazioen erabilera banatzeko prozeduraren araubidea ezarri zuen, Foru Agindu baten bitartez.

Hala ere, oraindik ez dago herriguneetan telefonia mugikorrerako antenak instalatzeari buruzko inolako araurik, eta, horren ondorioz, horrelako azpiegiturak ugartzen ari dira.

Gainera, hori guztia larriagoa da kontuan hartzen baldin bada ez dagoela bermatuta, osasun publikoaren ikuspegitik, mota horretako azpiegiturak instalatzea kaltegarria ez denik. Zenbait txostenen arabera, "ez da frogatu arriskua dagoenik", baina erabakigarria ez da hori, baizik eta jakitea ea frogaturik dagoen arriskurik ez dagoela.

Hori guztia dela-eta, eta gizartearen baitan arazo eta kezka ugari sortzen ari den gaur egungo kontrol gabezia ikusirik, beharrezkoa da jakitea zer nolako kontrola egiten ari den Nafarroako Gobernua.

Hori guztia dela-eta, Parlamentuko gure Taldeak honako galdera hauek egin nahi ditu:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al daki telefonia mugikorrerako zenbat antena dauden gaur egun Nafarroan instalaturik? Baiezkoan, zehatz bedi zenbat instalatu diren jadanik, zenbaten instalazioa izapidatze-fasean dagoen, non dauden kokaturik eta zein enpresa operadorearenak diren.

2.- Horietako zenbat daude herriguneetan kokaturik? Adieraz bedi non dauden eta udalerrri bakoitzean zenbat dauden, eta baita antena horien arteko distantziak ere.

3.- Horietako zenbat kokatu dira Foru Administrazioaren edo bere Erakunde Autonomoen jabetzakoak diren eraikinetan? Adieraz bedi zenbat diren, non dauden kokaturik, eta zein baldintzatan sinatu diren kontratuak.

4.- Aurreko galderan aipaturiko guztiek instalatzeko behar diren baimen eta lizentzia guztiak al zeuzkaten instalatu ziren unean? Ezezkoan, adieraz bedi zergatik.

5.- Iruñeko Conde Oliveto kalean dagoen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eraikinean zehazki ba al dago telefoniako antenaren bat instalaturik edo instalatzen ari denik? Instalazio horrek beharrezkoak diren baimen eta lizentzia guztiak al ditu?

6.- Horrelako antenak herriguneetan edo ingurumarietan instalatzeak osasunari inolako arriskurik ekartzen ez diola ondorioztatzen duen inolako azterlan edo txostenik egin du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak? Baiezkoan, txosten horien kopiak erants bitez.

7.- Ezezkoan, eta horrelako antenen instalazioen ugaritzea kontuan izanik, zergatik ez da txostenik egin? Horrelako txostenak egiteko asmorik ba al dago? Noizko egingen dira?

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 7an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Azkoiengo osasun barrutiko gaueko osasun laguntzari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZON JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Azkoiengo osasun barrutiko gaueko osasun laguntzari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dadin:

Azkoiengo osasun barrutian, osasun etxeko gaueko zerbitzua mediku eta OLT banaren bitar-

tez abiarazteko eskaera dago barruti hori osatzen duten udalerrietan. Udalen eta herritarren eskaera hori dela-eta, udalak berak prest daude osasun-kostu hori kofinantzatzeko ere.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi genuke:

– Zergatik ukatzen du zerbitzu hori Nafarroako Gobernuak?

– Batez beste, zenbat jenderi ematen zaio osasun laguntza gauez osasun barruti horretan?

– Zer kostu izanen luke, gutxi gorabehera, osasun etxe horretan mediku eta OLT bana bertan egoteko ekartzeak?

– Departamentuak bilerarik egin al du Osasun Kontseiluarekin, eskaera hori aztertzeko?

– Eskaera horri erantzuteko ekintzaren bat egingen al du?

Iruñean, 2001eko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Félix M^a Taberna Monzón

Cascanteko ikastetxe publikoan laguntzako irakasleak eskatzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZON JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Cascanteko ikastetxe publikoan laguntzako irakasleak eskatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dadin:

Cascanteko Udalak laguntzako irakasleak eskatu dizkio Hezkuntza Departamentuari, ikastetxe publikorako, etorkinak eskolatzearen ondoriozko hezkuntza- eta integrazio-eskaera berriei aurre egin ahal izateko. Eskaera hori ikastetxe publiko

horretako hezkuntzaren errealitatean oinarriturik dago; izan ere, beharrezkoa da etorkin horiei hizkuntza behar bezala irakastea, ikasleen komunikazioa eta integrazioa errazteko eta, azken batean, herritar gisa haiei eskubide batzuk bermatzeko. Parlamentuko gure taldearen aburuz, eskaera hori arras arrazoizkoa da, eta etorkinen etorrerak erakartzen dituen hezkuntzako eta gizarte-integrazioko beharrianak osatzen ditu. Are gehiago: gure ustez, integrazio-erronka horiek, oinarrian, hezkuntza-sistemak bideratu behar ditu. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

– Cascanteko Udalaren eskaera aintzat hartzeko asmorik al du Hezkuntza Departamentuak?

– Ezezkoan, zergatik?

– Departamentuak gai horri buruzko bilerarik egin al du Eskola Kontseiluarekin eta Udalarekin?

– Ikusirik beste ikastetxe publiko batzuetan ere egoera hori gertatzen dela, ekintza-planik ba al dauka Departamentuak, etorkinak sare publikoan integratzeko laguntzako irakasleak ezartzeari buruz?

Iruñean, 2001eko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

Parlamentuak ebazpenak onetsi eta Nafarroako Gobernuak bete ez izanari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZON JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 12an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Parlamentuak ebazpenak onetsi eta Nafarroako Gobernuak bete ez izanari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Foru Parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak, Biltzarreko Erregelamenduak xedaturikoa-ren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dadin:

Galdera

– Nafarroako Parlamentuaren zenbat ebazpen ez ditu Gobernu honek bete legegintzaldi honetan? Zein dira jarrera horren zergatiak?

Iruñean, 2001eko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitatean behi-aziendaren entzefalopatia espongi-formearen jarraipen eta kontrol berariazkoa egiteko batzorde berezia sortzea eta haren osaketari, antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko arauak onestea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Lehena: Nafarroako Foru Komunitatean behi-aziendaren entzefalopatia espongi-formearen jarraipena eta kontrola egiteko Batzorde Berezia sortzea.

Bigarrena: Aipatu batzorde horren osaketa, antolamendu eta funtzionamenduari buruzko arau hauek onestea, Eledunen Batzarrarekin bat etorritik:

“1go. Nafarroako Foru Komunitatean behi-aziendaren entzefalopatia espongi-formearen jarraipena eta kontrola egiteko Batzorde Berezia sortzen da, eta xede izanen du behi-aziendaren entzefalopatia espongi-formearen alorrean azterlanak egitea, informazioa jasotzea eta proposamenak egitea.

2gn. Batzordea Parlamentuko talde bakoitzeko bi ordezkari osatuko dute, baina badago muga bat: talde bakar batek ere ez dezala izan batzorde berezi honetan, Parlamentuko ohiko batzordeetan dituen kideak baino kide gehiago.

3gn. Batzordea eratzeko bilkura Biltzarreko Mahaiak erabakitzen duen egunean egingen da, Parlamentuko taldeek haien ordezkariak izendatu ondoren.

4gn. Parlamentuko Lehendakaria Batzordeko lehendakari izan ahalko da. Eratze-bilkuran batzordeko lehendakaria hautatuko da. Batzorde-

ari laguntzen dion legelari bera izanen da batzordeko idazkari.

5gn.- Batzordearen ebazpen guztiak txosten edo irizpen formakoak izanen dira. Horiek Mahaia-ri igorriko zaizkio eta horrek Eledunen Batzarrari entzun ondoren ezartzen duen prozedurari jarraituz izapidatuko dira.

6gn. Batzordeak boto ponderatuen sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horretarako, Eledun bakoitzak –Parlamentuko Lehendakariak salbu, bilkurara etortzen denean-- parlamentuko bere taldea osatzen duten parlamentariak adina boto izanen ditu Batzordean.

7gn. Batzordeak bere eginkizunak beteko ditu Mahaiak Batzordea desegitea erabakitzen duen arte.

8gn. Zortzigarrena.- Antolaketari eta funtzionamenduari dagokien arau hauetan aurreikusi ez den guztirako, Biltzarren Erregelamenduak batzorde berezietarako oro har arautu duena izanen da kontuan; hor ere ez badago araurik, Erregelamenduak ohiko batzordeetarako arautu duena aplikatuko da.”

Hirugarrena: Parlamentuko Taldeek otsailaren 12ko 10:00ak baino lehenago jakinaraziko diote Mahaiari zein izango diren Batzordean edukiko dituzten ordezkariak.

Laugarrena: Erabaki hau Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001ko otsailaren 6an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroan migrazio-politika bideratu behar duten irizpide orokorrak aztertzeko batzorde berezia sortzea eta haren osaketari, antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko arauak onestea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Lehena: Nafarroako inmigrazio politikaren irizpide nagusiak aztertzeko Batzorde Berezia sortzea.

Bigarrena: Aipatu batzorde horren osaketa, antolamendu eta funtzionamenduari buruzko arau hauek onestea, Eledunen Batzarrarekin bat etorritz:

“1go. Nafarroako inmigrazio politikaren irizpide nagusiak aztertzeko Batzorde Berezia sortzen da, eta xede izanen du Inmigrazioari buruzko Plan Integral baten oinarriak lantzea, inmigrazioaren erronkari politika atondu, aktibo eta integral baten bitartez erantzuteko.

2gn. Batzordea Parlamentuko talde bakoitzeko bi ordezkari osatuko dute, baina badago muga bat: talde bakar batek ere ez dezala izan batzorde berezi honetan, Parlamentuko ohiko batzordeetan dituen kideak baino kide gehiago.

3gn. Batzordea eratzeko bilkura Biltzarreko Mahaiak erabakitzen duen egunean egingen da, Parlamentuko taldeek haien ordezkariak izendatu ondoren.

4gn. Eratze-bilkuran batzordeko lehendakaria hautatuko da. Lehendakaria bertan egon ezean, Parlamentuko bere taldeko kide batek, batzordekidea bera, ordeztuko du, edo, bestela, haren ordezkari gisa kreditatu denak. Batzordeari laguntzen dion legelari bera izanen da batzordeko idazkari.

5gn. Batzordeak boto ponderatuen sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horretarako, Eledun bakoitzak parlamentuko bere taldea osatzen duten parlamentariak adina boto izanen ditu Batzordean.

6gn. Batzordeak Nafarroako Gobernuaren laguntza eta lankidetzak eskatu ahalko du, eta haren Lehendakariari eskatu ahalko dio eskumena duten kargudun edo funtzionarioak bertaratzea edo behar diren txostenak egitea. Azterlana burutu ondoren, Batzordeko Lehendakariak Mahaiari eta Eledunen Batzarrari igorriko die.

7gn. Batzordeak bere eginkizunak betetzen jarraituko du agindutako lana bukatu arte –hala bada, orduantxe iraungiko da--, edo Mahaiak batzordea desegitea erabaki arte.

8gn. Zortzigarrena.- Antolaketa eta funtzionamenduari dagokien arau hauetan aurreikusi ez den guztirako, Biltzarren Erregelamenduak batzorde berezietarako oro har arautu duena izanen da kontuan; hor ere ez badago araurik, Erregelamenduak ohiko batzordeetarako arautu duena aplikatuko da.”

Hirugarrena: Parlamentuko Taldeek otsailaren 12ko 10:00ak baino lehenago jakinaraziko diote Mahaiari zein izango diren Batzordean edukiko dituzten ordezkariak.

Laugarrena: Erabaki hau Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001ko otsailaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusirako Hezkuntza eta Kultura Batzordeko ordezkari bat izendatzea

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko otsailaren 15ean eginitako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen:

1. Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusirako Hezkuntza eta Kultura Batzordeko ordezkaria ondoko pertsona hau izendatzea:

– Carlos Cristóbal García jauna

2. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko otsailaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefona *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--